

Ondorio teorikoen ebazpenak

1. Higidura zuzen eta uniformearen posizio-bektorearen ekuazioaren egitura

Higidura zuzen eta uniformea denean, posizio-bektorearen espresio orokorra hauex da:



$$\vec{r} = (x_0 + v_x \cdot t) \vec{i} + (y_0 + v_y \cdot t) \vec{j}$$

x_0, y_0 ... hasierako posizioa



v_x, v_y ... abiadura

2. Higidura zuzen eta uniformearen adierazpen grafikoak (posizioa-denbora eta abiadura-denbora). Higidura bi dimentsiotan (x eta y) ematen dela suposatuz.

Posizio-denbora grafikoak:



Abiadura-denbora grafikoak:



3. Posizio-bektorean oinarrituz, trajektoriarene ekuazioa lortzeko eman beharreko urratsak

- "x" eta "y" osagaien ekuazio parametrikokoak lortu; hau da, posizio-bektorea hartuz, bere osagaietan deskonposatu: $x=f(t)$; $y=f(t)$

- "x"-en ekuazio parametrikotan "t" askatu "x"-en funtzioan: $t = f(x)$
- "y"-ren ekuazio parametrikotan "t"-ren ordean "x" sartu: $y=f(x)$

4. Posizio-bektorea, abiadura-bektorea eta azelerazio-bektorearen arteko erlazioak

Posizio-bektorearen ekuazioa denborarekiko deribatuz → Abiadura-bektorearen ekuazioa

Abiadura-bektorearen ekuazioa denborarekiko deribatuz → Azelerazioa-bektorearen ekuazioa